

9. KOSTU EGITURAK

Oraingoan enpresaren bizitzan zehar izango ditugun kostu egituren aurreikuspena kalkulatu dugu. Hasiera batean 100 unitate sudadera egingo ditugu eta muturren birziklapenarekin gure produktuaren kostua kalkulatu dugu. Horrez gain, egingo ditugun ekintzen kostua ere kalkulatu dugu, hala nola, edukiontzien eta kanpainen kostua. Hau hasierako kostuaren kalkulua izanda, aurrerago produkzioa handitzen dugunean unitateko kopurua ez da aldatuko, beraz proportzionalki handituko da kostua kopurua handitzen denean. Atal hau enpresa eratzeko atal garrantzitsu bat iruditzen zaigu, enpresaren irabazpenak aurreikusteko.

Egitura:	Kopurua	Kostua
Muturretarako edukiontziak	20 edukiontzi	600€ bakoitza
Sudaderen eraketa	100 sudadera	1.017,5€
Muturren birziklapena	10.000 mutur	200€
Tabakoaren kontrako kanpaina	1	5.000€ (gure diru sarreren araberakoa izango da)
Haziak dituzten gutunak eratu	100	40€
Lan egiteko lokala	1	200€ hilero